




FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

K / Komentukua, 6 behe
 48260 ERMUA
 TEL. / FAX (943) 17 42 89



Uztailaren 6an, 26 ume saharauiak Ermura heldu behar ziren. Hemen, bi hilabate igaro behar zituzten, euren lurraldetik urrun, eta gauza asko lehen aldiz ikusiko zuten: eskailerak, ur grifoak, argia piztu eta italtzekoak... Baina azkenengo momentuan arazoak egon dira hegazkinekin eta gure herriko familiak oraindik umeen zain daude. Ermuko Sahara Herriaren Aldeko Plataformako Maria Rosario eta Miguel Angelekin berbetan egon gara.

"Saharatik datozen umeek ez dakarte inungo ekipairik"

-Nola sortu zen ume saharauiak ekartzeko ideia?

Idea edo proiektu hau 10 urte inguru dabil martxan, Saharako umeak Estatura bidaltzen. Udan beroak jasaezinak izaten dira bertan eta hona badatoz, umeak ez dira hainbeste itotzen. Gainera euren familiak ere pixka bat lasaitu daitezke. Horretaz gain hobeto eta gehiago jaten dute eta bere osasunerako onuragarria da. Iaz ez ziren etorri, Saharan, azkenik, erreferenduma egin behar zelako, nahiz eta azkenean halakorik ez gertatu. Eta aurten, lehenengo aldiz, ume batzuk Ermura etorri behar dira.

-Zer nolako harrera izan du Ermuan ekimen honek?

Oso harrera ona, benetan. Hasi-era-

ko bileretara 50 pertsona inguru etorritzen ziren eta 26 familia animatu dira umeak euren etxeetan eukitzera. Ermua, ume kopuru handiena ekarriko duen Bizkaiko bigarren herria da eta Euskal Herri osora 400 ume etorriko dira.

"Umeak 9 eta 11 urte arteko neska-mutilak dira eta normalean bere bizitza osoan behin bakarrik etortzen dira"

-Zein arduratu da guztia antolatzeaz?

Antolaketaz Ermuko Saharaui Herriaren Aldeko

Plataforma arduratu da, baina Udalak momentu oro laguntza eskaini digu, adibidez, diru kontuetan, non bidaiei gastu guztiak bere gain hartu dituen.


URRETA

Burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit Haltzariak

Zeharkalea, 8 Telf.: 17 65 61 • ERMUA

MIGUEL Harategia




T
X
O
R
I
Z
O
A
K

O
D
O
L
O
S
T
E
A
K

Probaleku, 3

☎ 17 05 63

ERMUA (Bizkaia)



Saharaviak Jaimak kanpin denda antzekoak dira, irudian zuhaitzaren ostean ikusi daitekeen moduan.

-Ezaugarri edo betebeharrak badago ume bat ekartzeko?

Ez, ez da inongo ezaugarri berezirik eduki behar. Umeak hartu dituztenen artean denetatik dago: emakumeak, jubenilak, baina gehien bat, 12 edo, ezkonduak eta seme-alabadunak dira. Penintsula osoan zehar eraman ditzakete umeak oporretan baina ezin dituzte Estatu Espainolek atera, horretarako bisadurik ez daukatelako. Betebehar bakarra, berriz, legezkoa da: familia guztientzat derrigorrezkoa da agiri bat sinatzea ume hoiek ez dituztela adoptatu behar esanez.

-Zoritxarrez, azkenengo momentuan, arazoak daude saharaviak Espainiara ekartzeko, zer dela eta?

Arazoa "Air Argely" konpainiaren eskutik etorri dira. Hegazkin konpainia hau Argeliatik bidaiak egiten dituen bakarra da, eta ume hauek ekartzera konprometitu zen baina oraindik ez digute erantzunik eman. Momentu honetan berrien zain gaude. Hegalaldi horiek gauzez egiten dira eta bigarren mailako bideetatik, aireportu militar batetik, baina ez dakigu zergaitik ez den egin.

Bestalde, atzerapen hau kalte asko ari zaigu egiten, umeak hemen bi hilabete bakarrik egon behar zirelako eta uztaileko espainolako klaseak eta txango batzuk antolatuta genituelako.

-Umeei buruz hitz egingo dugu orain.

Nolakoak dira eta nola moldatzen dira hizkuntzarekin?

Umeak 9 eta 11 urte arteko neska-mutilak dira eta normalean bere bizitza osoan behin bakarrik etortzen dira Espainiara, nahiz eta orain, egon den harrerarekin (6.000 umeetatik, 10.000ra igo da kopurua), haur batzuk bigarren aldiz etortzen ari diren. Bestalde, hizkuntzarekin arazoak izaten dituzte. Batzuk, gaztelania pixkat dakite, agian euren aitona-amonak Espainian lan egin zutelako, baina normalean ez dakite asko. Soilik "coca-cola" esaten, hori bai guztiak dakitela.

-Horretaz gain, beste gauza asko berriak izango dira euren izenak, ezta?

Bai, harrituta gelditzen dira guretzat normalak diren gauzen aurrean. Oso arraroa iruditzen zaie uraren grifoak edozein tokitan aurkitzea, bertan ur urritasuna dagoelako, eta nola funtzionatzen duten. Gauza bera gertatzen da argiarekin. Eurek eguzki panelekin lortzen dute argia eta pizteko eta itzaltzeko errezetasun hori arraroa egiten zaie. Gero, ohiturak oso desberdinak dira. Inoiz ez dute ikusi eskilerarik eta zaila

egiten zaie kalkulatzeko. Hasieran oso errez jausten dira. Errepideak ere... Ez daude ohitutak trafikoa ikustera eta errepidetik trankil-trankil ibiltzen dira.

-Nola bizi dira Saharan?

Egoera nahiko txarra da: elikadura arazoak dituzte (hona heltzerakoan errebisioa egiten zaie), jaiman (kanpi denda antzekoak) bizi dira... baina zoriontsuak dira, bere bizitza da eta ez dute uste ezer falta zaienik, beti horrela bizi izan direlako. Irrikitan egoten dira askotan etxera bueltatzeko.

-Eta politikoki?

Hori beste gauza bat da. Gizonak ejerzitoan daude eta emakumeak bizitza osoa antolatzen dute.

Askok eta asko errefuxiatuak daude Argelian eta Mauritania, erreferenduma noiz egiteko duten zain. Independentzia lortu nahi dute eta tin-ko egiten dute lan hori lortzeko.

Beraz, ume hauek heltzen diren bitartean itxaroten jarraitu beharko dute ermuko familiak euren ongietorri beroa emateko.